

<p>Zure izena atzekoz aurrera esan behar duzu.</p>	<p>Zure abizena atzekoz aurrera esan behar duzu.</p>
<p>Gelan edo inguruan, "A" letrarekin hasten diren bost gauza aurkitu behar dituzu.</p>	<p>Gelan edo inguruan, "S" letrarekin hasten diren bost gauza aurkitu behar dituzu.</p>
<p>"<i>Maritxu nora zoaz</i>" abestu behar duzu, bokal guztiak A-rekin ordezkatzuz: «Maratxa nara zaaz adar...».</p>	<p>Kanta ingeles edo frantses bat abestu behar duzu.</p>
<p>Gelan edo inguruan, "H" letrarik ez duten bost gauza aurkitu behar dituzu.</p>	<p>Gelan edo inguruan, "E" letrarik ez duten bost gauza aurkitu behar dituzu.</p>

<p>"<i>Gernikako arbola</i>" abestu behar duzu, bokal guztiak <i>E</i>-rekin ordezkatzuz: «Gernekeke erbele de bedeenketee...».</p>	<p>"<i>Maitetxo itsasoan dago</i>" abestu behar duzu, bokal guztiak <i>I</i>-rekin ordezkatzuz: «Miititxi itsisiin digi, itsisiintzi bitiin...».</p>
<p>"<i>Donostiako hiru damatxo</i>" abestu behar duzu, bokal guztiak <i>O</i>-rekin ordezkatzuz: «Donostooko horo domotxo Orrontoroon dondoro...».</p>	<p>"<i>Egun da Santi Mamiña</i>" abestu behar duzu, bokal guztiak <i>U</i>-rekin ordezkatzuz: «Ugun du Suntu Mumuñu, bunutun ugun sumuñu...».</p>
<p>Sabaia ukitu behar duzu aulki batera igo barik.</p>	<p>Sudurraren punta mihiarekin ukitu behar duzu.</p>
<p>Egunkari edo aldizkari bateko argazkietan, hiru gizon aurkitu behar dituzu, bibotea dutenak.</p>	<p>Egunkari edo aldizkari bateko argazkietan, hiru pertsona aurkitu behar dituzu, buruan kapela dutenak.</p>

<p>Egunkari edo aldizkari bateko argazkietan, hiru emakume aurkitu behar dituzu, mikrofono baten aurrean hizketan ari direnak.</p>	<p>Egunkari edo aldizkari bateko argazkietan, hiru haur aurkitu behar dituzu, jolasean ari direnak.</p>
<p>Pariseko monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek Paris dela asmatu arte.</p>	<p>Bilboko monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek Bilbo dela asmatu arte.</p>
<p>New Yorkeko monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek New York dela asmatu arte.</p>	<p>Donostiako monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek Donostia dela asmatu arte.</p>
<p>Erromako monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek Erroma dela asmatu arte.</p>	<p>Txinako monumentu, pertsona, leku eta toki ezagunak marraztu behar dituzu, jolaskideek Txina dela asmatu arte.</p>

<p>Komuneraino joan behar duzu hanka baten gainean saltoka, eta, gero, handik itzuli behar duzu beste hankaren gainean saltoka.</p>	<p>Belarriak mugitu behar dituzu.</p>
<p>Esan bost bider: «Akerrak adarrak okerrak ditu; okerrak adarrak akerrak ditu».</p>	<p>Esan bost bider: «Marigorringo, zurigorringo, bihar eguzki ala euri egingo?».</p>
<p>Esan barre egin barik: «Kamamila, mantzanila, mendian gabiltza bila eta bila. Hara hemen zerbait biribil-biribila. Zer ote da? Zer ote da? Behin baten kaka-pila».</p>	<p>Fruta baten izenaren letrak egin behar dituzu gorputzarekin, jolaskideek zein den asma dezaten.</p>
<p>Animalia baten izenaren letrak egin behar dituzu gorputzarekin, jolaskideek zein den asma dezaten.</p>	<p>Herri edo hiri baten izenaren letrak egin behar dituzu gorputzarekin, jolaskideek zein den asma dezaten.</p>

<p>Telebistako pertsonaia baten izenaren letrak egin behar dituzu gorputzarekin, jolaskideek zein den asma dezaten.</p>	<p>Zure lagun baten izenaren letrak egin behar dituzu gorputzarekin, jolaskideek zein den asma dezaten.</p>
<p>Oinak mugitu barik, ipurdia lurrean jarri behar duzu, eta gero berriro altxatu.</p>	<p>Esan barre egin barik: «Mari Lutxi kutxi-kutxi diru asko buru gutxi kutxi-kutxi Mari Lutxi gastu asko diru gutxi».</p>
<p>Sudurrarekin pilota bat edo baloi bat bultzatu behar duzu, egongelatik komuneraino.</p>	<p>Jarri karta-multzoa aurpegiz gora pilatuta mahaiaren gainean, eta sudurrarekin errege kopa bilatu behar duzu.</p>
<p>Jarri karta-multzoa aurpegiz gora pilatuta mahaiaren gainean, eta sudurrarekin zazpiko ezpata bilatu behar duzu.</p>	<p>Jarri karta-multzoa aurpegiz gora pilatuta mahaiaren gainean, eta sudurrarekin zaldun urrea bilatu behar duzu.</p>

<p>Jarri karta-multzoa aurpegiz gora pilatuta mahaiaren gainean, eta sudurrekin lauko bastoia bilatu behar duzu.</p>	<p>Botila baten barruan putz egin, eta txilibitu-soinua atera behar duzu.</p>
<p>Ezpainak biribildu eta "<i>Ikusi mendizaleak</i>" abestia txistukatu behar duzu, barre egin barik.</p>	<p>Ezpainak biribildu eta "<i>Santurtzitik Bilboraino</i>" abestia txistukatu behar duzu, barre egin barik.</p>
<p>Gelako guztien izenak esan behar dituzu silaba bakoitza birritan errepikatuz. Erratuz gero, berriro hasi behar duzu. <i>Adib.: ga-ga, ra-ra, zi-zi (Garazi)</i></p>	<p>Gelan edo inguruan, zazpi gauza berde aurkitu behar dituzu.</p>
<p>Gelan edo inguruan, zazpi gauza gorri aurkitu behar dituzu.</p>	<p>Gelan edo inguruan, zazpi gauza urdin aurkitu behar dituzu.</p>

<p>Eragiketa matematiko hau ipurdiarekin idatzi behar duzu airean, eta jolaskideek emaitza esan behar dute.</p> <p style="text-align: center;"><math>2 \times 6</math></p>	<p>Eragiketa matematiko hau ipurdiarekin idatzi behar duzu airean, eta jolaskideek emaitza esan behar dute.</p> <p style="text-align: center;"><math>4 + 5</math></p>
<p>Eragiketa matematiko hau ipurdiarekin idatzi behar duzu airean, eta jolaskideek emaitza esan behar dute.</p> <p style="text-align: center;"><math>7 - 1</math></p>	<p>Eragiketa matematiko hau ipurdiarekin idatzi behar duzu airean, eta jolaskideek emaitza esan behar dute.</p> <p style="text-align: center;"><math>9 : 3</math></p>
<p>Jolaskideak lurlean eseri, eta traineru batean bezala ipini behar dituzu.</p> <p>Zu patroia izango zara, eta erritmoa markatuko diezu, hamar arraunkada jo arte.</p>	<p>Jolaskideek besoz beso jarri behar dute ilara batean. Gero, aurrerantz makurtu, eta tunel bat osatu behar dute, eskuak lurlean jarrita.</p> <p>Zuk joan-etorria egin behar duzu tuneletik narras.</p>
<p>Itzulipurdiak eginez, egongelatik komuneraino joan behar duzu, eta buelta egongelara.</p>	<p>Begiak estali behar dizkizute, eta bost jolaskidek euren gauza bana jarriko dizute eskuan.</p> <p>Gauza bakoitza norena den asmatu behar duzu.</p>